

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Gurasoen elkarteetzako 2020ko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2020ko maiatzaren 14ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 510737

Diru-laguntzak emateko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3 eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da, eta horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-basean kontsulta daiteke, <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

Lehenengoa. Onuradunak

Zuiako ikastetxe publikoetako gurasoen elkarteak (IGEak).

Bigarrena. Xedea

Aipatu elkarten esku-hartzea bultzatzea eta 2019-2020 ikasturtean antolatzen dituzten eta ikasleen prestakuntza orokorrean eragiten duten eta ikasleen behar psikopedagogikoak artatzen dituzten jarduera osagarrien, eskolaz kanpoko gastuetan laguntzea eta interesgarriak diren hezkuntza-proiektuak gauzatzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2020ko maiatzaren 14n onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Partidaren diru-zuzkidura 19.500 eurokoa da, eskolaz kanpoko jarduera eta jarduera osagarrietarako, eta 16.500 eurokoa, laguntza psikopedagogikorako.

Diru-laguntzaren zenbatekoa garatutako jarduera-motaren arabera izango da: ehuneko 25etik ehuneko 70era bitartekoa, eta jarduera gehienetarako irizpide orokorra ehuneko 50 izango da. Behar psikopedagogikoetarako laguntzaren zenbatekoa aurrekontu-mugara heldu arte ordainduko da, egindako gastuak eta ikastetxeko teknikariek egindako txostena aurkeztu ondoren. Hezkuntza proiektuetan diru-laguntzaren zenbatekoa kostuaren ehuneko 100era artekoa izan ahalko da eta kopurua 2020ko aurrekontuan bideratutako jatorrizko partidatik hartuko da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei egun baliodun, deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2020ko maiatzaren 14an

Alkate-udalburua
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA